

LUIS BARAIAZARRA ADISKIDEARI ESKUTITZ LABURRA

Adiskide:

Karmel adizkariaren 229n. zenbakian, kultura-arloan eta 3n. orrialdean asita, zure idazlan gogoangarri bat irakurri al izan dot. Euskerearen kondaira edo edestiari begiratuta azterketa egiten dozu millaurteko au amaitzera goazen une onetan eta erruki bereizia agertzen dautsezu bizkaiereari eta zuberoreari. Neure euskalkiari dagokion aldetik eskerrik asko!

Or agertzen dozuz euzkaltzale Bazkuna, Ekin, Euskerea, Karmengo Argia, Argia Egutegia, Zeruko Argia, Euskera, Karmel... Ainbat idazle be aitutzen dozuz, baiña onein izenak ez dodaz emen barriro agertuko. Gero euskera batuaren eta atxearen arazora sartzen zara zalaparta ta asareak amaitu dirala esanez. Azken urteotan euskalkian idatzitako ainbat lan agertu ei dira. "Mendebalde" mugimendua ardatz dala eta lekuan lekuko aldizkari batzuen joera ez ei da zure gogokoa. Dana irakurri ondoren itaun batzuk, adiskide:

Ez dozu ezagutzen AGUR izena eukan aldizkaria?

Ez dozu ezagutzen gaur Argitaratzen dozun ZER aldizkaria?

Ez dozuz ezagutzen Bizkai'ko euskeraz idatzi doguzan liburuak?

Eta Bilbao'ko Euskerazaleak? Eta Labayru?

Eta Euskerazaintza Euskerearen Erri-Akademia?

Zeu Bizkai'ko euskerearen lagun izan eta zergaitik ia beti batua erabilli zeuk, oraingo onetan lez?

Itaun oneik nire barruko miña agertu nai dautsue eta zure jokabide ori ez dala zuzena agertzera bearturik nago.

Parkatu gogorregi berba egin ba'dautsut baiña parkamena eskatzeak ez dau esan nai egia ukatzea.

Biotzez agurtzen zaitu aspaldiko adiskide dozun.

OLAZAR'tar Martin'ek



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
KULTURA SAILA
LAGUNTZAILLE